


IRAKURKETA-GIDA

Ako Trod

Roald Dahl

Ako Trod

Roald Dahl



LIBURUAREN AURKEZPENA

Egilea

Gurasoak Norvegiakoak zituen, baina Roald Dahl Galesen jaio zen, 1916an, eta Oxforden hil, 1990ean.

Oso eskola-bizitza zorrotza izan ostean, Shell petrolio-konpainiarekin lan egitera joan zen Afrikara. Bigarren Mundu Gerran, Erresuma Batuko Aireko Armadan (*Royal Air Force*, RAF) sartu zen hegazkin-pilotu, baina hegazkin-istripu baten ondorioz, zerbitzua utzi zuen. Horrek aukera eman zion literatura-sorkuntzan aritzeko. Helduentzako beldurrezko, misteriozko eta fantasiazko eleberriak eta ipuinak idatzi zituen, baita zinema-gidoiak ere, eta batez ere, haurrentzako liburuak.

Haurrentzako istorioen xx. mendeko kontalari handienetako bat dela esaten da. *Matilda* eta *Charlie eta txokolate-lantegia* dira Dahlen lan ezagunenetako batzuk, arrakasta handiz eraman direlako zinemara.

Egilearen beste liburu batzuk hauek dira: *Errima errebeldeak*; *Hatz miragarria*; *A zer azeria!*; *Jira*, *pele eta hirurok*, etab.

Irudigilea

Quentin Blake 1932an jaio zen, Sidcupen (Ingalaterra). Eskolan zegoenean hasi zen marrazten, eta hamazazpi urte baino ez zituenean, lehenbiziko aldiz haren marrazki batzuk argitaratu zituzten, *Punch* umorezko aldizkarian. Cambridgeko Unibertsitatean Filologia ikasten ari zela, zenbait argitalpenetan irudiak egiten jarraitu zuen.

1960an argitaratu zuten haren lehen liburua. Harrezkero, haur eta helduentzako liburuak –batzuk berak idatziak– irudiztatzen aritu da.

Blaken marrazkiak erraz bereizten dira, espontaneoak eta itxura xumekoak baitira. Haren estilo arinaren atzean, jeinuzko artista baten talentua dago: umorea, samurtasuna eta probokazio- nahiz satira-dosi handiak batzen dira haren lanetan.

Espanian, Blaken lanak hedapen izugarria izan du, Roald Dahlen liburuetako irudiek, batez ere. Dahlek iritzi hau zuen bere lagun eta lankideari buruz: «Nire ustez, munduko onena da haurrentzako liburuak irudiztatzen».

Liburua

Hoppy jauna, gizon edadetu bat, maiteminduta dago bere bizilagun Silver andrea-rekin, baina ez da maitasun hori agertzera ausartzen. Silver andrea alarguna da, eta dortoka batekin (Alfie) bizi da. Alfiek, hain zuzen, erraztuko du bi pertsonaiak elkarrengana hurbiltzea. Silver andrea goibel samar dabil, bere dortoka oso poliki hazten delako. Hoppy jaunak bere etxea tamaina askotako dortokaz beteko dion trikimailu bikain bat asmatuko du, eta Silverren dortokaren lekuan jarriko ditu, hark Alfie azkarrago hazten dela pentsa dezan. Istorioa bikotearen ezkontza zoriontsuarekin amaitzen da.

Zergatik irakurri liburu hau?

Istorio honetan bi alderdi nabarmentzen dira: adinekoen arteko amodioa eta animalien maitasuna. Bi gaiak samurtasunez eta umore-sen finez jorratzen dira. Hoppy jaunak Silver bizilagunaren dortokak aldatzen dituenean, graziaz eta errespetuz jokatzeko du. Beste behin ikusten dugu ironia eta umore-sena besteeenganako errespetuarekin bateragarriak direla.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Hizkuntza berri bat asmatzerakoan euskararen oinarritzko hizkuntza-elementuak aintzat hartzea.

Testu errimatuak identifikatzea eta errimen ezaugarriak aztertzea.

Lan-munduko hiztegi berria (lanaldi osoa, murriztua, lanbideak...) barneratzea.

Zientziarako gaitasuna

Izaki bizidunen arteko erlazioak: gizakiak, landareak eta animaliak.

Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak.

Izaki bizidunen habitatak: Galapago uharteak.

Izaki bizidunen elikadura.

Aintzat hartzea desagertzeko arriskuan dauden espezieak babesteko beharra.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Auzoaren antolamendua eta auzokideen arteko harremana.

Urtea, urtaroak eta egutegia ezagutzea.

Elkarriketa, gatazkak konpontzeko.

Bizikidetzak arauak errespetatzea.

Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna

Liburuan agertzen diren irudiek, ikonoek etab. transmititzen dizkiguten sentimenduak eta mezuak interpretatzen jakietea.

Hitzik gabe ere sentimenduak, ideiak eta pentsamenduak komunikatu ahal ditugula ohartzea.

Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna

Idea bat izatea, eta ideia hori errealitate bihurtzeko prozesua.

Erronka berriei ausardiaz eta erantzukizunez aurre egitea.

Izaten ikasteko gaitasuna

Iruzur errukiorrean oinarritutako maitasunaren inguruan gogoeta egitea.

Maitasunaren inguruan gogoeta egitea.

Balioetan hezte

Liburu honetako pertsonaiek elkarrenganako errespetuan oinarritutako jokabide-ereduak proposatzen dituzte. Gainera, liburuak animalien eta landareen zaintza-rekin lotutako kontzientzia sortzen du.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Ozen: Asma dezagun argumentu bat · 1. jarduera

Liburua irakurtzen hasi aurretik, irakurri behar dutenarekin lotutako zenbait jarduera proposatuko dizkiegu ikasleei, irakurketari aurrea hartzea landu dezaten eta testuaz guztiz goatzeko presta daitezen.

Liburuaren azalari eta, batez ere, irudiari ondo begiratzeko eskatuko diegu; eman diezaietela begirada bat liburu barneko irudiei, eta asma dezatela istorio posible bat, proposatutako bost irudietan oinarrituta. Amaitzen dutenean, asmatutako istorioa ozen nork irakurri nahi duen galdetuko diegu.

Pertsonaiak ezagutuko ditugu · 2. jarduera

Jarduera honen bidez, irakurketari aurrea hartzea lantzen jarraituko dugu, bai eta sormena ere. Liburuari gainetik begiratu ondoren, eleberri honetan hiru pertsonaia daudela konturatuko ziren: gizon bat, andre bat eta dortoka bat. Bakoitzarentzat izen bat pentsatzeko eskatuko diegu, eta dagokion lekuan idazteko.

Zuzen eta atzekoz aurrera · 3. jarduera

Arbelean idatziko dugu kontakizun honen izenburua. Esanahian arreta jartzeko eskatuko diegu ikasleei, eta hura deszifratzera gonbidatuko ditugu. Klabeen idatzitako mezu bat ote da? Atzerriko izen bat ote da? Ikasleak konturatzen ez badira, irakasleak azaldu behar die *dortoka* hitza dela, atzekoz aurrera idatzita.

Ondoren, atzekoz aurrera idatzitako sei esaldiren esanahia deszifratzeko eskatuko diegu ikasleei, zuzen idatz ditzaten.

Nolakoak dira benetan pertsonaiak? · 4. jarduera

Aurrea hartzeko jardueretan, ikasleek usteak eraiki dituzte pertsonaiei buruz, haien izaerari buruz, harremanak izateko duten erari buruz, etab.

Haien hipotesiak eta eleberri honen benetako argumentua alderatzeko unea da orain. Beraz, dagoeneko ezagutzen dituztenez, pertsonaiak benetan nolakoak diren azaltzeko eskatuko diegu: zer ezaugarri dituzten, nola jokatzen duten, etab.

Laburdurak · 5. jarduera

Liburuaren azken-aurreko orrialdea PD laburdurarekin hasten da, eta irakasleak ondo dakienez, *post-data* hitzari dagokio. Hori baliatuz, ikasleak laburduren erabilerara hurbilduko ditugu.

Liburuan agertzen diren hitzen laburdurekin lan egiteko proposatzen dugu; esate baterako, *jauna*, *andrea*, *etxea* eta abar. Jarraian, haurrei deszifratzeko eskatuko diegu, eta hitza osorik idazteko.

Dortokak hazten doaz · 6. jarduera

Nahikoa lan eta kalkulu matematiko egitea ekarri zion plan bat asmatu zuen Hoppy jaunak, Silver andreak pentsa zezan Alfie hazten ari zela eta hazkuntza hori Hoppy jaunak paper batean idatzi zizkion hitzak errezitatzearen ondorio zela.

Hoppy jaunak zazpi astean egindako lan hori baliatuko dugu, ikasleek dortokak haien pisuarekin eta pisu hura "lortu" zen astearekin lot dezaten; horrela ikusiko dugu dortoka astean 50 gramo lodiarazten zuela Hoppy jaunak. Gainera, galdera erraz bat egingo diegu: hasierako eta amaierako dortoken pisuari buruzko datuak kontuan izanda, dortokaren pisua bikoiztu egin zela (pisua zehazki bikoitza ez izan arren) esaten denean zer adierazi nahi den ulertu behar dute.

Ezkatuko ahaide bat · 7. jarduera

Behaketa- eta memoria-jolas erraz baten bitartez, dortokaren oskolaren barruan agertzen diren hizkiak haurrek zuzen ordenatzea nahi dugu, *galapago* (hau da, *apoarmatu* hitzaren ordaina gaztelaniaz) hitza osa dezaten.

Jarduerari erantzun ondoren, Galapago uharteei buruzko informazioa bilatu dezakete: Non daude? Zergatik dute izen hori?

Baloratu

Dortokaren fitxa · 8. jarduera

Ikasleek animalia horri buruz dituzten ezagupenetatik abiatuko gara, eta ezezagunak zaizkien datuak liburuetan, entziklopedietan, Interneten eta abarretan ikertera gonbidatuko ditugu.

Gogoraziko diegu dortoken tamaina eta pisua aldatu egiten direla: badira zentimetro gutxi batzuetakoak edo gramo gutxikoak, baina bi metrokoak eta tona batekoak ere bai. Haien oskolari buruz hitz egingo diegu, ia gorputz osoa estaltzen baitie; esango diegu ez dutela hortzik, edota itsasoko, lehorreko eta ur gezako dortokak daudela... Azkenik, fitxa betetzeko eskatuko diegu.

Emakumeak ala gizonezkoak?

Istorioaren amaieran, Silver andreak uste du Alfie hazita dagoela eta bere etxean arazorik gabe sartzen dela. Orduan, Hoppy jaunak berarekin ezkontzeko eskatzeko erabakia hartzen du. Silver andreak, oso pozik, baietz erantzuten dio eta inoiz ez ziola eskatuko pentsatzen zuela esaten dio.

Ikasgelan, mutiko adina neskato duten taldeak egiteko proposa daiteke, istorioaren zati honi buruzko iritziak eman ditzaten. Besteak beste, eztabaidatu dezakete ea gizonezkoak eskatu behar ote zuen ezkontzeko ala emakumeak ere egin zezakeen lehen urratsa. Garrantzitsuena, dena dela, haien iritziak arrazoitzea da.

Eztabaida-une horren ondoren, talde bakoitzeko ordezkari batek zer ondoriotara iritsi diren azalduko die ikasgelako gainerako ikaskideei.

Eztabaidatu: *Galzorian dauden animaliak*

Telebistan ikusitako zenbait erreportajeren bidez, jakin dugu Galapago uharteetako dortoka-espezie batzuk galzorian daudela eta gaur egun espezie horien ale gutxi geratzen direla. Nahiz eta gaur egun debekatuta dagoen salerostea, espezie horietako batzuen oskolak (karei dortokarenak, adibidez) estimazio handia du orrazien, kutxatxoan, inkrustazioen eta abarren fabrikazioan.

Taldeka jarrita, izaera ekologistako elkarteetan (WWF/Adena edo Greenpeace, esaterako) honako hau bilatzeko eskatuko diegu: dortoken egungo egoerari buruzko informazioa, zer neurri hartzen ari diren haiek ez desgertzearren... Lortutako datuak horma-irudi batean jar daitezke.

Talde-lana ixteko, eztabaida bat antolatuko dugu ikasgelan. Oso garrantzitsua da guztiek parte hartzea.

Landa-koaderno

Gomendagarria da gure inguruan bizi diren animaliei begiratzen denbora-tarte bat ematea, landakoa nahiz hirikoa izan ingurune hori.

Ikasleei landa-koaderno bat egiteko proposatuko diegu, eta elementu hauekin betetzeko: behatutako animalien argazkiak edo marrazkiak; animalia horien itxura fisikoari eta elikadurari buruzko oharra; zenbat urte bizi ohi diren...

Gainera, interesgarria litzateke animalien deskribapena haien inguruari berezkoa zaion landarediaren datuekin osatzea.

Sortu

Idazlearen lanbidea: *Neurrira egindako bidaia*

Gure ikasleei istorioaren jarraipena idazteko eskatuko diegu.

Silver andrea eta Hoppy jauna ezkondu egin dira. Dibertigarria gerta liteke ezkondu berriei eztei-bidaia original bat antolatzea, haientzat bereziki pentsatua. Hasteko, erabil ditzaketen garraiobideak zerrendatzen joan gaitezke: besteak beste, zaldia, orga, globo aerostatikoa, bizikleta...

Horren ondoren, haiek joateko leku erakargarriak aipa ditzakegu banan-banan. Esate baterako, Dortokaren uhartea (hau da, banana-sailez betetako Haitiko Errepublikako uharte independentea); baina, zalantzarik gabe, beste Dortokaren uhartean (Venezuelakoan) egongo lirateke beren saltsan. Izan ere, uharte horrek hango dortoka-ugaritasunagatik du izen hori; eta zer egokiago haientzat? Galapago uhartean edo Puerto Ricoko Tortugueroko urmalean ere eztei-bidaia oso ona igaroko lukete, seguruenik.

Munduko mapa bat erabiltzea iradokitzen dugu, lehen aipatutako lekuak geografikoki kokatzeko ikasgelan.

Hoppy jaunaren etxe-animalia · 9. jarduera

Liburu honetako istoriorako beste pertsonaia bat sortzeko proposatuko diegu haurrei: Hoppy jaunarekin hasieratik bizi den etxe-animalia bat. Ondoren, pertsonaia berri hori deskribatzeko eta marrazteko eskatuko diegu, bai eta haren ezaugarriekin lotutako izen bat asmatzeko ere.

IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl

1. jarduera · Asma dezagun argumentu bat

Ikus dezagun nola dabilen zure asmamena. Liburu honetako bost irudi emango dizkizugu, eta zuk istorio bat idatzi beharko duzu irudi horietan oinarrituta. Ausartuko al zara? Bai horixe! Begiratu eta idatzi.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl

2. jarduera · Pertsonaiak ezagutuko ditugu

Hauek dira irakurri behar duzun eleberriko protagonistak. Idatzi izen bat bakoitzarentzat; ondoren, bilatu liburuan benetako izenak eta kopiatu behean.



.....
.....

3. jarduera · Zuzen eta atzekoz aurrera

Zazpi esaldi emango dizkizugu atzekoz aurrera idatzita, Hoppy jaunaren formulak bezala. Deszifratu bakoitzaren esanahia eta idatzi esaldiak.

KAKOTROD KAITSARRAN ARID.

► Dortokak narrastiak dira.

KAKOTROD KAORAPIBO ARID.

►

KEKOTROD UTANREBIH NETIGE ETUD.

►

ATUTAREPRUL NEZTANREBIH ETUD.

►

ZE ETUD KIZTROH.

►

ZALIARAB NEZTAKETSAM ETUD.

►

LOKSO NAURRAB ZUTATUKZE NETSEBAB ARID.

►

IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl

4. jarduera · Nolakoak dira benetan pertsonaiak?



Argiak, maitekorrak, lasaiak, urduriak, bitxiak, onberak... Seguruenik askoz hitz gehiago bururatuko zaizkizu Silver andrea eta Hoppy jauna definitzeko. Hala da, ezta? Ba, idatzi zure ustez haien nortasunari egokien datozkionak.

.....

.....

.....

.....



.....

.....

.....

.....

5. jarduera · Laburdurak

- Zenbait hitz laburtuta idazteko modu bat dira laburdurak. Eleberri honen amaieran, 74. orrialdean, PD laburdura agertzen da. Bilatu haren esanahia eta osatu fitxa eleberrian agertzen diren beste hitz batzuen laburdurekin.

PD (74. or.)

And. (12. or.)

Etx. (33. or.)

Sol. (68. or.)

Jn. (11. or.)

Tel. (34. or.)

- Badago laburdura bat, liburuan agertu gabe, jarduera honetan agertzen dena. Zer esan nahi du?

Or.

IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl

6. jarduera · Dortokak hazten doaz

- Ondo ulertu al duzu nola gertatzen ari zen Alfieren ustezko zazpi asteo hazkundera? Lot itzazu gezien bitartez dortoka bakoitzaren pisua eta hari dagokion astea.



550 gramo

Bigarren astea



400 gramo

Zazpigarren astea



450 gramo

Bosgarren astea



700 gramo

Hirugarren astea



600 gramo

Lehen astea



750 gramo

Laugarren astea



500 gramo

Hasiera



650 gramo

Seigarren astea

- Liburuak dioenez, azkenerako dortokaren tamaina bikoiztuta zegoen. Egia al da hori?

- Zenbateko pisua izan behar zuen dortokak, pisua benetan bikoiztu balitzaio?


IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl


7. jarduera · Ezkutuko ahaide bat

Begiratu ondo, alboko dortokak zerbait ezkututzen du eta. Bere ahaidetako baten izena gaztelaniaz, alajaina! Ordenatu itzazu hizkiak eta nor den jakingo duzu.



8. jarduera · Dortokaren fitxa

Eleberria irakurri ondoren, honezkero asko jakingo duzu dortokei buruz, ezta? Bada, erakutsi zure jakinduria eta osatu fitxa hau:



Zer animalia-familiakoak dira dortokak?

Nolakoa da euren gorputza?

Nola mugitzen dira?

Nola ugaltzen dira?

Nola babesten dira etsaietatik?

IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl

9. jarduera · Hoppy jaunaren etxe-animalia

Eman dezagun liburu honek beste pertsonaia bat duela: Hoppy jaunarekin hasieratik bizi den etxe-animalia bat. Nolako izan behar luke Hoppy jauna harekin pozik egoteko? Marraztu, deskribatu eta jarri izen bat maskota horri.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl

Irakurmen-testa

Pentsatu ondo galderak eta adierazi zein diren erantzun zuzenak.

1. Nor maite zituen Hoppy jaunak?

- ☐ a Loreak eta dortokak.
- ☐ b Loreak eta Silver andrea.
- ☐ c Silver andrea eta dortokak.

2. Nor maite zuen Silver andreak?

- ☐ a Senarra.
- ☐ b Bilobak.
- ☐ c Alfie.

3. Zertarako sartzen zen Alfie neguan belar ondua zegoen etxetxo batean?

- ☐ a Jateko.
- ☐ b Hibernatzeko.
- ☐ c Hazteko.

4. Zer ematen zion Silver andreak Alfieri jateko?

- ☐ a Aza-hostoak.
- ☐ b Uraza, tomate-xaflak eta apioa.
- ☐ c Zereal-aleak.

5. Zergatik egin zitzaion erraza Hoppy jaunari bere plana gauzatzeko tresna bat fabrikatzea?

- ☐ a Oso adimentsua zelako.
- ☐ b Ordurako asko zituelako erdi eginda.
- ☐ c Mekanikari izana zelako.

6. Zenbatean behin aldatzen zituen Hoppy jaunak dortokak Silver andrearen balkoian?

- ☐ a Hiru egunean behin.
- ☐ b Astero.
- ☐ c Hilero.

IZENA: MAILA:

AKO TROD

Roald Dahl

7. Zergatik egin zuen ikara-deiadar bat Silver andreak zazpigarren astearen ondoren?

- ☐ a Dortoka ezin zelako bere etxetxoan sartu.
- ☐ b Bere balkoian bi dortoka zeudelako.
- ☐ c Dortoka desagertu egin zelako.

8. Hurrengo esaldietako zein da faltsua?

- ☐ a Esan beharreko hitzak idatzita zituen beste paper bat eman zion Hoppy jaunak Silver andreari, dortoka zertxobait txikiago egin eta etxetxoan berriro sar zedin.
- ☐ b Silver andreak esan zuenez, horrek funtzionatzen bazuen, munduko gizonik adimentsuena zen.
- ☐ c Silver andreak ikusi zuen Hoppy jaunak, bere plana gauzatzeko, etxea dortokaz beteta zuela.

9. Zein da egiazkoa?

- ☐ a Hoppy jauna eta Silver andrea ezkondu eta oso zoriontsuak izan ziren.
- ☐ b Hoppy jauna eta Silver andrea etxean bi dortoka zituztela geratu ziren.
- ☐ c Silver andrea Hoppy jaunarekin haserretu egin zen, Hoppy jaunak Alfie kendu baitzion.

10. Orain hogeita hamarren bat urte dituela kontuan izanda, zenbat hazi da benetako Alfie?

- ☐ a Ehun gramo hazi da.
- ☐ b Bi aldiz handiagoa egin da.
- ☐ c Ez da ia ezer hazi.

Erantzunak

AKO TROD

Roald Dahl

Asma dezagun argumentu bat

- 1. jarduera
- E.L.

Pertsonaiak ezagutuko ditugu

- 2. jarduera

Silver andrea/ Alfie dortoka/ Hoppy jauna.

Zuzen eta atzekoz aurrera

- 3. jarduera

Dortokak obiparoak dira.
Dortokek hibernatu egiten dute.
Lurperatuta hibernatzen dute.
Ez dute hortzik.
Barailaz mastekatzen dute.
Oskol barruan ezkutatz babesten dira.

Nolakoak dira benetan pertsonaiak

- 4. jarduera

E.E:
Silver andrea Hoppy jaunaren auzokidea da. Emakume alarguna da eta bere dortoka Alfie da bere maite kuttuna. Silver andrea bere dortokaren tamainarekin kezkatuta dago eta goibel dago oso motel hazten dela uste duelako. Horrez gain emakume langilea da, baita

inozoa ere Hoppy jaunaren iruzurra sinisten baitu.

Hoppy jauna bakarrik bizi den gizon erretiratua da. Hoppy jaunak bi maite kuttun ditu: balkoian dituen landareak eta sekretuan maite duen Silver andrea. Hoppy jauna oso lotsatia da eta ez da ausartzen Silver andreari bere maitasuna adierazten. Aldi berean, oso gizon azkarra da Silver andrea konkistatzeko plan bizi bat otutzen zaiolako.

Laburdurak • 5. jarduera

PD: post-data.

And.: andrea.

Etx.: etxea.

Sol.: solairua.

Jn.: jauna.

Tel.: telefonoa.

Or.: orrialdea.


Erantzunak

AKO TROD

Roald Dahl

Dortokak hazten doaz

• 6. jarduera



Dortokak narrastien antzera lekualdatzen dira lurrian: euren gorputza poliki-poliki arrastatuz. Baina uretan oso arin mugitzen dira igerian.

Dortokak obiparoak dira, hau da arrautzetatik jaiotzen dira.

Etsaietatik babesteko dortokek euren gorputz osoa ezkutatzen dute oskol gorraren barnean.

Hoppy jaunaren etxe- animalia

• 9. jarduera

E.L.

Irakurmen-testa

1 b; 2 c; 3 b; 4 b; 5 c; 6 b; 7 a; 8 c; 9 a; 10 b.

Ezkutuko ahaide bat

• 7. jarduera

Galapago.

Dortokaren fitxa

• 8. jarduera

Dortokak narrastiak dira.

Dortokek enborra oskol batez estalita dute eta gorputzeko tenperatura erregulatzeko gai dira.